

## IKEAk eta Guggenheim Bilbao Museoak klima-aldaketarako irtenbideak aurkitzeko ekimen bat abiarazi dute

- *HomeForOurPlanet* ekimenaren xedea Estatuko gazteak mobilizatzea da, etxetik klima-aldaketa geldiarazteko edo haren ondorioetara egokitzeko ideia berritzaileak aurki ditzaten
- Ekintza ideia-lehiaketa batekin hasiko da, eta Estatuko 18–35 urte bitarteko gazte guztiak parte hartu ahal izango dute bertan, martxoaren 17ra arte, webgune honen bidez: [homeforourplanet.com](http://homeforourplanet.com)
- Ideiarik originalenak bidaltzen dituzten bost irabazleetako bakoitzak 2.000 € jasoko ditu, eta erronkaren inguruko *Design Thinking* moduko jardunaldi batzuetan parte hartu ahal izango dute
- Ekimena IKEAk hainbat museorekin (hala nola Disseny Hub Barcelona-rekin eta Madrilgo Thyssen-Bornemisza Museoarekin) urte osoan lankidetzan garatutako proiektu baten barruan dago.

**Madril/Bilbo, 2025eko otsailaren 24a.** IKEAK eta Guggenheim Bilbao Museoak *HomeForOurPlanet* lehiaketa abiarazi dute gaur. Lehiaketa hori Espainian bizi diren 18–35 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta **belaunaldi berriak mobilizatzea** du helburu, **klima-larrialdirako irtenbideak aurki ditzaten**. Ideiarik berritzaileenak bidaltzen dituzten bost parte-hartzaileetako bakoitzak 2.000 euro jasoko ditu, eta, gainera, Bilbora etorri ahal izango da, problematika horren inguruko *Design Thinking* moduko jardunaldi batzuetan parte hartzera. Jardunaldi horietan, proiektu irabazle bat aterako da.

Parte hartzeko interesa duten gazteek **klimari eragindako kaltea etxetik murrizteko edo klima-baldintza berrietara egokitzeko proposamen bat** azalduko duen bideo bat (3 minutukoa gehienez) egin eta webgune honen bitartez bidali beharko dute: [www.homeforourplanet.com](http://www.homeforourplanet.com) Hautagaitzak aurkezteko epea gaur hasi da, eta martxoaren 17an amaituko da. Martxoaren 24an, berriz, bost irabazleak nortzuk diren jakinaraziko da.

*“Klima-larrialdia planeta jasaten ari den errealitate ukaezina da. Izan ere, Munduko Meteorologia Erakundearen arabera, datozen bost urteetan, gutxienez batean, temperatura-maximo historikora iristea aurreikusten da”, azaldu du **Laura Duránek**, IKEAko Espainiako Negozio Garapeneko eta Jasangarritasuneko zuzendari nagusiak. “Hala ere, IKEAk konpromiso handia du jasangarritasunarekin, eta uste dugu garaiz gaudela norabidea aldatzeko eta klima-larrialdiaren aurrean lanari ekiteko. Ekimen honen bidez, errealitate horri etxetik aurre egiteko inspirazio-iturri izango diren ideia originalak eta sormen handikoak aurkeztera bultzatu nahi ditugu gazteak”.*

**Lekha Hileman Waitoller** Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduraduna da, eta ingurumen-jasangarritasuneko ekimenak bultzatzeko bertan sortutako Gu-Zero taldeko ordezkaria ere bada. Haren hitzetan, *“gure museoaren jardueraren emisioak murrizteko bidean gaude, eta 2030erako*

*karbono-neutraltasuna lortzeko **konpromisoa** hartua dugu; horregatik, gazteei entzutera bultzatzen duen proiektu honetan parte hartzea inspiratzailea da guretzat, zalantzarik gabe. Gogoeta egiten eta gure planeta hobetzen lagunduko diguten ideia berriak jasotzeko irrikan gaude”.*

## **HomeForOurPlanet: Ba al duzu sormen eta inpaktu handiko irtenbiderik etxetik klima-aldaketa geldiarazteko?**

Guggenheim Bilbao Museoak eta IKEAk abiarazi duten ekimen hau bi erakundeen artean klima-larrialdiari erantzun objektibo eta positibo bat emateko garaian sortutako sinergien ondorioz sortu da. Bi fase izango ditu ekimenak: lehen fasean, arestian aipatutako ideia-lehiaketa egingo da, eta parte-hartzaileek klima-aldaketari aurre egiteko ideiak azalduko dituen bideo bat bidali beharko dute.

Proiektuaren bigarren fasean, lehen faseko bost irabazleek Euskadiko diseinu-eskoletako eta ingurumen-zientzietako eskoletako ikasleekin batera lan egingo dute, aholkularitza-enpresa estrategiko batek zuzenduko dituen *Design Thinking* moduko saio gidatu batzuetan. Jardunaldiak Museoan egingo dira maiatzaren bigarren astean, eta parte-hartzaileek hainbat taldetan lan egingo dute, klima-larrialdiari etxetik eta beste bizi-espazio batzuetatik ekingo dioten proiektuak garatzeko. Ekimenari azkena emateko, amaierako ekitaldia egingo da maiatzaren 12an, astelehena, Guggenheim Bilbao Museoan. Bertan, IKEAko eta Museoko espezialistez eta aditu independenteez osatutako diziplina anitzeko epaimahai batek proiektu irabazlea zein den jakinaraziko du.

Deialdiaren oinarri osoak esteka honetan kontsultatu daitezke: <https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu/jarduerak/homeforourplanet>

## **Guggenheim Bilbao Museoa eta jasangarritasuna**

2021ean, Guggenheim Bilbao Museoak Ingurumen Jasangarritasuneko Esparru Estrategiko bat zehaztu zuen NBERen 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuekin bat etorritik eta, horri esker, bere jarduera osoa eraginpean hartzen zuen Jasangarritasun Ekintzen Plan bat garatu ahal izan zuen. Asmo handiko plan hori bultzatze aldera, erakundeko hainbat arlotako pertsonen osatutako Gu-Zero taldea sortu zuen, plantilla, hornitzaileak eta gizarte-eragileak informatu, sentsibilizatu eta inplikatze eta Jasangarritasun Planean jasotako ekimenak identifikatu eta bultzatzeko.

2023an, sektorean ingurumen-inpaktua murrizteko lan egiten duten erakunde artistikoen Gallery Climate Coalition (GCC) nazioarteko komunitateko kide aktibo bihurtu zen Estatuko lehen museoa izan zen, eta 2030erako karbono-neutraltasuna lortzeko konpromisoa hartu zuen publikoki.

## **IKEAren eta museoaren arteko beste kolaborazio batzuk**

*HomeForOurPlanet* ekimena IKEAk urte osoan hainbat museorekin lankidetzan egindako proiektu baten barruan dago.

**Disseny Hub Barcelona** izenekoan, **VINÇONEN eduki nahiko genituzkeen IKEAko 100 objektu** erakusketak omenaldia egin dio Bartzelonako VINÇON denda enblematikoari, Fernando Amaten ideia batean oinarrituta. Amatek bere dendan eduki nahiko zituzkeen IKEAko 100 produktu hautatu zituen. Erakusketa horretan, diseinu onarekin eta haren demokratizazioarekin konpromiso partekatua duten

sektoreko erreferentziatzeko bi markaren arteko azterketa konparatiboa egin da. Erakusketa urriaren 16tik otsailaren 23ra arte egon da jendearentzat zabalik.

Madrilgo **Thyssen-Bornemisza Museo Nazionalean**, ***IKEA eta etxeko artea*** erakusketa inauguratu zen joan den azaroaren 25ean. Erakusketa horrek etxeak XV. mendetik XX. mendera bitartean izan duen bilakaera aztertzen zuen, Museoeko bilduma iraunkorreko 16 maisulanetan barrena egindako ibilbide baten bidez. Erakusketa areto batean amaitzen zen, eta IKEAk bere historiaren ateak ireki zizkigun bertan, bere diseinu demokratikoaren gakoak ezagutarazteko. Erakusketa joan den urtarrilaren 6an amaitu zen.

## IKEA

80 urteko historia ospatzen ari gara. IKEA 1943an sortu zen Suedian. Eta duela 27 urte iritsi ginen Penintsulara. Bide luzea egin dugu hasi ginenetik, eta berrikuntzak, irtenbideak, produktu enblematikoak eta negozio-ekintzak sortu ditugu, hamarkada bakoitzean etxebizitzaren etorkizunari eta pertsonekin dugun konpromisoari forma eman diotenak. Horrela erantzun diogu pertsona gehientzat eguneroko bizitza hobea sortzeko eginkizunari. "Diseinu demokratiko" kontzeptuaren bidez, betirako aldatu ditugu etxeak. Hau da, pertsona guztiek produktu funtzionalak, diseinukoak, jasangarriak, kalitatekoak eta prezio onekoak eskuratzeko aukera izatea. Hori da gure konpromisoa.

Hori lortzeko, gure balioei jarraitzen diegu eta gogo handiz dihardugu gure lanean. Gure indarra talde-espirtua eta Ikea Espainia osatzen dugun guztion gogo bizia da. Gogor egiten dugu lan, baina ongi pasatzen dugu. Berdintasunaren alde egiten duen eta planeta zaintzen duen enpresa inklusiboa gara. Jarraitzeko, zure beharra dugu.

Jarraitu iezaguzu hemen:    

## Guggenheim Bilbao Museoa

Guggenheim Bilbao Museoa erakunde aitzindaria da, eta 1997an inauguratu zenetik, bere programazio artistiko dinamikoari eta asmo handikoari esker mundu osoko milioi bat bisitari baino gehiago erakartzen ditu urtean. Nazioarteko arte moderno eta garaikideko erakusketa berezi handiak antolatzeaz gain, Museoak kultura-dinamizazioaren eta bere lurraldearen garapenaren aldeko apustua egiten du hezkuntza-jardueren programa osatu baten bidez. Artea etorkizunerako inspirazio.

Informazio gehiago:

### Tinkle

[andrea.bautista@tinkle.es](mailto:andrea.bautista@tinkle.es)

[ikea@tinkle.es](mailto:ikea@tinkle.es)

Tel.: 91 702 10 10

### IKEA Ibérica

[spain.press.es@ingka.ikea.com](mailto:spain.press.es@ingka.ikea.com)

Tel.: 91 492 50 00

### Guggenheim Bilbao Museoa

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

Tel.: 34 944 359 008